# 48 08

## LANESTOSA


Lanestosa lurralde hedadura txikiena duen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerria da (1,25 Km2). Horrez gain, mendebaldeko mutur-muturrean kokatutako lurraldea ere bada, Kantabriarekin mugatuz. Bizkaiko lurralde historikoaren barruan dago eta baita Enkarterrien eskualdean ere. Bere jentilizioa bitxia da: nestosarra (nestosano / nestosana), bere jatorrizko izena Nestosa edo La Nestosa zelako. Gaur egungo izena XIX. mende erdialdean finkatu zen.

Beste ezaugarri bitxi bat bere zabalera txikia da (490 m punturik zabalenean) bere luzerarekin konparatuz (4,56 Km), punturik estuenak 30 m besterik ez duela. Hegoaldeko sektorea estuena da eta N-629 errepideari eta Kalera ibaiari jarraitzen die.


271 biztanlez osatutako biztanle gune bakarra dauka.

Antzineko garaietan Kantabria barne zegoen, baina Erdi Aroan Bizkaira gerturatzeko prozesu motela hasi zen eta hura 1287ko ekainaren 6an amaitu zen, Lope Díaz de Haro Bizkaiko Jauntxoaren eskutik hiriaren pribilegioa jaso zuenean, Burgoseko mendiak Kantauri itsasoarekin komuniatzeko helburuarekin, Jaurerritik kanpoko bide batetik gertu herri bat finkatzeko aukera emanez.

Hala ere, 1804. urtera arte, Lanestosa eta Enkarterriak ez ziren behin betiko Bizkaia barne egon.




*Lanestosako udal mugartea, mendebaldeko muturrean kokatutako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerria.*




*Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Lanestosako udal mugartea, Bizkaiko mendebaldeko muturrean.*



*Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 464289 m // Y: 4785376 m. Lanestosako hirigunea.*